


Goran ikus dezakegun adibidean bezala, apirilean, lau aldiz joan denez, beherapen bat lortu du. Kasu honetan, patata txikiak eta Kas botila bat lortu ditu. Apirilean lortutakoa urte bukatu baino lehen lau hilabeteetan errepikatzen bada, menu bat dohainik lortuko du. Azkenik, txarteleko hutsune guztiak betetzen baditu, astebetean jatordu guztiak dohain izango ditu.

Beste atal batean azaldu bezala, propaganda eta sare sozialen bidez erakarriko dugu gure bezeroen arreta.

Gure bezeroen gustuak ezagutzeko, gure web-gunean inkesta bat izango dute eskura. Hau gure jabetxean egon ondoren, egingo da janaria eta zerbitzua egokia izan diren jakiteko.

Bertan, hainbat galdera egongo dira zerbitzu eta produktuen inguruan eta gustatu zaienaren arabera "X" jarri beharko dute dagokion hutsunean.

"X" BATEZ ADIERAZI			
Zerbitzatzeko azkartasuna			
Kokalekua			
Langileen jarrera eta gertutasuna			
Garbitasuna			
Instalakuntza			
Elikagaien zaporea eta kalitatea			

Oharra:

Galdeketa honen bidez, gure bezeroek gustu eta iradokizunak jakinaraziko dizkigute eta horrela, gure produktuak aldatu, hobetu edo mantenduko ditugu. Bestalde, hau ez da behin egiteko inkesta izango, jabetxean kontsumitzen duzun bakoitzean

betetzea komenigarria da, bai guretzat eta baita bezeroentzat ere, modu honetan, beren gustuak kontuan hartuko baitira.

Hau da, janari aldaketak, instalazio aldaketak, langile berriak edo produktu berriak eskaintzean, mantendu, aldatu edo berrezarri jakingo dugu inkesta.

Baina honek ere baditu bere alde txarrak, jendeak pentsatu gabe, modu desegokian, hau da, gure kalterako egin ditzakete inkestak, anonimoak baitira.

Umeak, eta haiekin batera familiak erakartzeko, baserriko animalien eta bertako produktuen kromoak emango dizkiegu haurrei bertan kontsumitzen duten bakoitzean.

Bertan, album batzuk izango ditugu salgai 5 eurotara, baina hau aukerakoa izango da. Horrela, umeen artean aldaketak egin ditzakete eta horrela gure jatetxea ezagunagoa egingo da. Izan ere, kromo bakoitzaren gainean, gure baserriaren logoa azalduko da.